



Miren Terese
Urrestarazu
Landazabal

1907-2004

BIDeGILEAK

Egilea:

Andoni Perez Cuadrado



MIREN TERESE URRESTARAZU LANDAZABAL

(1907-2004)

Amarik gabe hazia

«**Z**er moduz? Euskaraz ba al dakizu?» Hasten zitzaion galdezka Miren Terese bidean topo egiten zuen guztiari. Parean gurutzatzen ez zenari ere inguratzen zitzaion batzuetan galdera bera egiteko. Begirunez eta jendetasunez galdetzen zien, jakina. Eta bere burua zuritzen hasten zenari laster desegiten zizkion zuribideak.

Berrogeita hamar urte baino gehiagoko adiskidetasuna izan genuen biok. Bizkaiko Aulesti herriko maistra izan bazen ere euskarara baino sakonago lerratu zen

Miren Terese irakaskuntzara. Bere neba Umandirekiko begiruneak eta euskara behar bezala ez jakiteak, seguru aski, hezkuntzan, maistra lanetan, gehiago jardunarazi zuen.

Gertaera batek aldarazi zuen jarreraz: Andoni *Umandi*, bere neba, atzerrira ihes egin beharrean gertatu zen. Euskaratik ikasten ari zen talde handi xamarra osatua zeukan. Euskara irakasteko gaiak ere moldatuak zituen, gero *Gramática Vasca* argitaratzeko balio izan ziotenak. Ihes egin baino lehentxeago hasi nintzen



Hil aurreko azken argazkia

ni ikastaldi horietan. Hortxe gelditu zen etenda euskara ikasteko nire asmoa. Hori ez da, jakina, euskaraz hain gutxi ikasi izana zuritzeko arrazoia.

Handik aurrera Miren Teresek hartu zuen bere gain aurrera jarraitzeko erantzukizunik handiena. Gogoa bai, bai-

na nahikoa euskara ez jakin, ordea, horretarako. Hala ere, iraupen handikoa eta saiaturia izaki, maila on xamarra lortu eta ikasle talde bat osatu zuen. Batez ere haurrekin saiaturia zen bizitza osoan.

Adinak ez du barkatzen eta tristuraren zulo beltzera jausi zen bi aldiz. Euskara utzi beharrean gertatu zen, gerora ikasia zuenez, astunegia baitzen egoera hartan lanean jarraitzeko. Zulotik atera zenean, hala galdetzen zidan, harriturik, nola erori naiz hain behera? Laurogeitaka urterekin ere berriro euskara ikasteari lotu zitzaion. Betebehar horri ezin baitzion inolaz ere ukorik egin.

Euskararekiko uzkur xamar zirenak ere bereganatu ohi zituen, hain zen adeitsua eta begirune handikoa besterekiko, edozein ideologia edo bizimodutakoa izan. Bere xumetasunak eta bere irribarreak edozein hesi lurreratzen zuen. Gasteizko Aingeruen Santa Maria parrokiako elizkizunetan euskaraz hitz batzuk tartekatzea ere lortu zuen bizitzako azken urteetan. Euskarekiko hain uzkur eta hotza den lekuan ez du hori lortzeak merezimendu gutxi.



Araia jaioterria

ARAIAN JAIOA ETA KANPOAN HAZIA

Asparrena udalerriko hiriburua da Araia. Arabako ordearen ipar-ekialdean dago, Altzania mendien oinetan, Gasteiztik 33 kilometrora. Haur txikien eskolaz gainera, beste bi zituen neska-mutikoentzat XX. mendearen hasieran. Guztira ia 200 lagun eskolatzen ziren herrian bertan.

Jose Urrestarazu eta Maria Amparo Landazabal senar-emazteek lau seme-alaba izan zituzten. 1902ko uztailaren 16an jaio zen Andoniren ondotik etorri ziren beste hirurak: Joakin, Karmen eta Miren Terese. 1907ko otsailaren 14an jaio eta 16an bataiatu zuten Maria Teresa izenez, San Pedroko parrokian. Handik gutxira hil zen ama.

Maria Anparok bazituen beste hamar senide. Bat, gainera, German Maria Lan-



Joakin anaia



Karmen ahizpa moja

dazabal Garagalza (senideen beste agiri batzuetan Garagarza), musikari sonatua izan zen. Edozein musika tresna jotzen zuen txikitatik: txistua, txirula, okarina, bandurria, gitarra. Araiako organistarekin hasi zen pianoan eta Jesus Aranburu eta Frantzisko Viñaspreekin jarraitu zuen ikasten. Erroma, Paris eta Munich

hirietan bizi izan zen 23 urterekin beka bat lortuta. Madrilen, Bilbon eta Donostian eskaini zituen kontzertuak bakarka eta orkestrarekin.

Baditu idatzitako musikak ere. Bestek beste, *En la cumbre del Alto-bizkar* poema sinfonikoa, Joan Iturraldere *La ba-*

talla de los muertos, Orreagako guduan idarokitua. Arrakasta handiz aurkeztu zen Donostiako Antzoki Zaharrean bere *La reina Margarita* komedia lirikoa.

German Landazabalen arrakastak, ordea, ez zion askotarako balio izan Jose Urrestarazu alargunari. Ezta andrearen aldeko senideak asko izateak ere. Bakoi-tzak bere etxean izan ohi du nahikoa lan.



Andoni anaia

Eta aita alargunarentzat ere esku bete lan geratu zen lau ume txikirekin. Bizitzeko behar zutena etxeratzeak ere lanak ematen zizkion.

Bere gisa moldatzeko txikiegia zen Miren Tereserekin, zer egin? Murgiatik moja karmeldarren komentura eraman zuen lau urterekin, antza denez. Zazpi urte egin zituen hor, 1911tik 1918ra, dirudie-nez. Baina desagertua denez, ez daiteke hortik Miren Terese ikaslearen inolako aztarnarik atera. Euskara baztertua izango zela asmatzeko, behintzat, ez da datu zehatzen beharrik.

Murgiatik Gasteizko, Foru kaleko, Jesusen Bihotza Ikastetxera aldatu zen Miren Terese, 11 urterekin. Batxilergo ikasketak burutu eta *Escuela Normal de Maestras* ikastetxean hasi zen 15 urterekin. XIX. mendearen erdi aldera zabaldu ziren Hego Euskal Herriko hiriburuetan irakasle eskolak. Ikasle aldetik izan ohi zuten gorabeherarik. Mutilen artean, behintzat, ez zen maisutarako zailtasun handiegirik sumatzen. Hori dela edo, mutilenik gabe geratu zen Araba 1924an. Maistratarako ikasleak, berriz,




Jesusen Bihotza ikastetxean ikasle

ugaldu egin ziren lau hiriburuetan Primo de Riveraren diktadura garaian. 1923-24 ikasturtean, adibidez, 152 ikasle zeuden Araban.

Miren Teresek 1922ko irailaren 18an egin zuen sarrerako azterketa. «Carlos I; Felipe II. Explendor de España y decadencia durante la dinastía austríaca» izan zuen aztergai. Gainditu eta hil horren 20an hasi zuen ikasturtea.

Lau urteko ikasketak burutu behar zituen. 1922-23 ikasturtean hiru nahi-



1922. Maistra ikasketak egiteko eskabidea

ko, hiru ondo eta hiru bikain lortu zituen. Antzekoak atera zituen hurrengo bi ikasturteetan ere. Laugarrengoan 6 nahiko, bi ondo eta eskas bat atera zituen. Hain zuzen, kimikan egin zuen huts. Hemen ere ez zen, jakina, euskararen aztarnarik.

«Normalistas» deitzen zitzaizen horko ikasleei. Ikasketez gainera, *Ideales Misioneros* izeneko aldizkaria argitaratzen

dute ikastetxean. Mugizu, Kerexeta, Askasibar, Uriarte eta Etxaniz gasteiztarak dira zuzendaritza batzordekoak. Miren Terese, berriz, diruzain, «avisadora» alegia.

Egin zuten misio-ekitaldi baten berri ematen digu Miren Teresek 1925eko



1926. Miren Terese Gasteizko karmeldar lekaimen komentuan

urriaren 2an. Zenbat diru bildu zen esateko presa zuen, nonbait. Bizitza guztian izango du kargua zintzo eta arretaz betetzeko presa hori. Karrera bukatzen duenean ere aipatzen dute Miren Terese aldizkarian. Inozente egunaren bezpera da. Eta bezperatik egin diotela «inozente» gogoratzen diote. «Ongi igaro Araian», opa diote. Baina badute karmeldarretan moja sartu den Karmen ahizparentzat ere oharrik: «egin digun jukutria ez diogu barkatuko».

MAISTRA SORIATIK AULESTIRA

Maistra karrera amaitu eta 1928ko irailaren 11n egiten du Estatuko Irakaskuntzan sartzeko eskaria, 21 urterekin. Berriri 1930eko abuztuaren 28an egiten du izendapen-eskaria. Moyano legea zela eta pixkana-pixkana galdu egin zuten udalek eta Aldundiek maisu-maistrak izendatzeko eskubidea. Eusten ahalegin handiak egin zituzten. Estatuko funtzionario bihurtzen zirenez, Euskal Herrira ere nonahikoek etortzeko aukera izango baitzuten, euskaldun umeen kaltetan.



Soriako San Felices herriko maistra, 1930ean

1876 arte bakarrik egin zitzaion ixkin-txo nola edo hala Moyanoren 1857ko legeari.

Geroztik Estatuaren esku geratu zenez. Miren Teresek ere ez zuen beste aukerarik izan. Eta Andaluzian eskaintzen diote plaza Madrildik. Handia da Miren Tereseren nahigabea. Aita alargunaren egoera azalduz beste herriren bat emateko eska-

tzen die. Soriako San Felices herria eskaintzen diote.

Ez dakigu mapan erraz aurkitu zuen. Araitik hara joateko bidea, behintzat, ez zitzaion motza egingo. Toki urrun eta arrotz hartan negar malko bat baino gehiago isuriko zitzaion, noski, begietatik Gasteiztik urrunago joan gabea zen Araiako neskatxa gazteari.

Ez zituen urte asko egin Soriako herrian, laster baitzen Bizkaiko Aulestin (Murelaga ere deitzen zitzaion) maistra. Eta bat-batean topo euskararekin. Mendiarteko herri euskalduna da, erabat euskalduna, Miren Tereseren garaian. Mila eta berrehun biztanle inguru dituen herria, Bilbotik 44 kilometrora eta Gernikatik 9 kilometrora.

Soriako umeek ederki ulertzen zioten, umeen hizkuntzan irakasten baitzuen. Baina aulestiarrek ez diote ulertzen. Hor ohartu da hizkuntza arrotzean, umeek ulertzen ez duten hizkuntzan, ari zaiela umei irakasten. Hor jabetu da erdal eskolak euskarari eta euskaldunei zenbat kalte egiten dien. Eta ez du, beste erdal maisu eta maistra askok bezala, bere bu-



Aulesti

murelaga 1967ko gabonilean
 agur Maria Teresa:
 Poz pozik idazten daukugu
 egun atsegin onetan, ber-
 katurik aurtxo jaungoakoe-
 ri, onetxi zaizala, bakie,
 orasuna eta alaitasuz
 inguraturik igaroteko zue-
 rriker batian E. guberti-
 ko fai onak.
 Me aurrorakuntze aum
 di barik, baina ostantzen
 polito. Zomalez etetik urte-
 tiko ez.
 martin, mary ta some
 alabak, batuten dira ni-
 garz besarkade baten
 zorian agura xuri antok.

Aulestiko Alkorta ahizpek, euskara ikasten
 lagundu ziotenek, 1967an bidalitako Gabon agurra

rua baserritarren eta ezjakinen hizkun-
 tza dela esanaz zurituko. Begirunez har-
 tzen ditu euskara eta euskaldunak eta
 ahal dituen hitzik gehienak eta euska-
 rarik gehien ikasten saiatzen da. Bizitza
 guztirako hartuko du euskararen aldeko
 jarrera.

Beste edozein irakasle erdaldun bere hiz-
 kuntza, gaztelania, ezartzen saiatuko zen,

ikasleek ulertu ala ez. Are okerrago, eus-
 kara zigortzen hasi zitekeen. Euskaldun
 batek baino gehiagok jasan du euskaraz
 hitz egiteagatik zigorra. Gogoan du as-
 kok zorioneko eratzun zigortzailea.

Adur ona izan zuen Miren Teresek. Al-
 baiteroaren etxean hartu zuten. Jakin
 dugunez, herriko alkate ere zen Joan
 Martin Alkortaren etxean. Horren bi
 alabek asko lagundu omen zioten eus-
 kara ikasten. Herrian ere euskara ikas-
 teko laguntza guztiak eman zizkioten.
 Eskolako irakaslea euskarako ikasle ere
 bazen. Herritarren miresmena eta esker
 ona berehalaxe irabazi zituen. Geroxea-
 go ere jokabide hori gogoan zuenik ba-
 zen herrian.

Baina zoritxarreko gerrak eten zituen
 Miren Tereseren eskolako lana eta eus-
 kara ikasteko ahalegina, 1936ko gerrak
 ezabatu zituen herrietako euskal esko-
 lak, ikastolak, euskarazko aldizkariak,
 egunkariak, irratiak eta liburuak. Dikta-
 durak, su eta gar, gupidarik gabe, eraso
 zien euskarari eta euskaltzaleei. Euskal
 izenak berak ere debekatu, zigortu eta
 ezabatu zituen.



Iraupen handiko emakumea

Miren Terese 1970eko hamarraldian

MENDEKUAK ETA ZIGORRAK

Beste asko bezalaxe, Andoni eta Miren Terese neba-arrebak lanik gabe utzi dituzte. Andoni, bankuko lanik gabe; Miren Terese, maistra izateko aukerarik gabe. Lanik gabe, dirurik gabe, bizimodurik gabe utzi zituzten. Andonik, Araba konpainiako gudari izan zelako, espetxerik eta polizien bisitarik jasan behar izan zuen behin baino gehiagotan. Egoera horrek asko erasan zion arrebari, baita psikologikoki ere.

Bidegurutzean zen berriro Miren Terese: dena utzi ala aurrera jarraitu? Ezpal

berezikoak dira urrestarazutarrak. Egoera beltz eta larri hartan ere ez dute etsiko. Bere etxean hasi zen batzuei eskola ematen. Geroago, adiskide batzuei esker, Elizbarrutiko Eskola Profesionalean hasi zen lanean. Baina denbora gutxirako. Diktaturak luzeak ditu atzaparrak. Txokorik ezkutueta raino iristen dira.

Elizbarrutiaren eskola hartan berehalaxe bildu zuen euskara ikasi nahi zuen taldea. Beste ikasketak alde batera utzi gabe jarduten zuten, jakina. Euskara asko maitate bazuen ere beste ikasketen galeran izaterik ez baitzuen Miren Teresek onartzen. Baina Josefa Sarralde zuzendariak, eskola orduetatik kanpo zertan ari zen kontura-



EAJ-PNVkoa lehenik, EAKoa gero

tu zenean, kaleratu egin zuen Miren Terese, 1950-54 bitartean Gasteizko gotzain izan zen Jose Maria Bueno Monreal-en oniritziz.

Eta berriro bere etxean, bere kontura, eskola ematera. Ez zen erraza hala bizimodua ateratzea. Estuasuak estuasun, euskara irakasteari ere ez zion utzi. Horretan, gainera, Andoniren eskolakoa zen, doan hartua doan eman behar zela, musu truk alegia. Beste eskoletatik eta ikastetxeetatik eskolako gaiak ikastera zetozenei bakarrik ko-bratzen zien, ez euskara ikastera hurbiltzen zitzaizkionei.

Eusko Alderdi Jeltzaleko jendeak kolpe gogorra hartu zuen 1951ko grebaren ondotik, Andoni eta beste batzuk atxilotu eta espetxean sartu zituzten. Gero, Huescara eraman zuten bahiturik Umandi eta Gasteiztik 100 kilometrora bizitzera behartu. Azkenik, Frantziara egin zuen ihes. Parisen eta Baionan igaro zituen Eusko Jaurlaritzarentzat lanean.

Horrek are eta zailago bihurtu zion bizitza arrebari: Iparraldera maiz joan beharra, ikasle berriak bilatu beharra, euskarenen aldeko hazia erein beharra... Nondik ateratzen zuen horrenbeste indar?

Haurtzarotik hezurmamitua zuen euskaldun/fededun leloa. Eta Jainkoak ez zuela inor bere eskutik uzten irmo sinesten zuen. Eta beti agertzen zitzaion norbait laguntzeko prest, gizakien bidez laguntzen baitu. Nazareteko moja frantsesen ikastetxera gidatu zuen ezkutuko esku horrek. Frantsesa zen eskolako hizkuntza. Eta hantxe ematen zituen bere klaseak Miren Teresek. Aldi berean, ahal zuen guztiei bere euskaltzaletasuna kutsatzen saiatzen zen, egokiera zuen bakoitzean, bere grazia eta irribarreak baliatuta.



Andoni eta Miren Terese, Andoni Perez Cuadradoren alaba Consueloren ezteietan (1980).
Consuelo Andoni Urrestarazuren ikasle izandakoa da

IKASTOLAREN HAZIA

Andoni eta biok lagun handiak egin ginen 1951ko grebaren ondoko kartzela aldian. Eta Miren Tereserentzat Andoniren ordezko bihurtu nintzen, horrek ihes egin zuenean. Batez ere diru kontuetan. Gure seme-alabak hazi ahala, beste batzuekin elkaturik askoz ere lan handiagoa egingo genuela, laster ohartu

zen Miren Terese. Pozik zen gure Urrestarazu andereño izateko aukera izango zuelako.




Itziar Aginagalde, Mertxe Oñatibia eta beste euskaldun batzuk eta Juan Enekotegi eta Ramon Narbaiza apaizak lagun, hogeit bat haur biltzen genituen etxe batean eta bestean. Euskara eta katekesia ematen zieten, igande goizean, Brigida mojen pa-

rrokian. Ikasle haietako batzuk irakasle dira gaur ikastoletan eta lizeoetan.

Pixkanaka-pixkanaka aurrera egiten dugu. Iritsi gara 1970 aldera. Zabaldu da Gasteizeraino Elbira Zipitria andereñoaren sua Donostiatik. Ordura arte ez zegoen euskal egiturarik eta sarerik eginda.

Umandiren ikastaldietako ikasleek baka-
barririk osatzen zuten 200 inguruko taldea.
Erdi ezkutukoa, noski.

Oñatibiaren bidez lortu zen Raimundo
Olabideren hazi izango zen ikastolako
andereñoa: Izaskun Arrue. Bere etxean
hasi zen aurrena, 14 umerekin. Nafarroa-



1960. Katekesia euskaraz irakasteko eskuz idatzitako materiala




Olabide ikastolako haurrak Estibalitzen Izaskun Arrue andereñoarekin

ko Arriben jaiotako maistra hau Gasteizen bizi baitzen ezkondurik. Hirugarren urterako 32ra iritsi ziren. 1967an lokal bat alokatu eta prestatu zuten. Hori da Olabide ikastolaren hazia. Eta horko guraso eta kide izan naiz neu. Eta Batzorde Zuzendaritzakoa nintzela egin zitzaion omenaldia Izaskun Arrue andereñoari.



Gasteizen, eskolaz kanpo, euskara ikasten hasi ziren lehen haurrak (1960ko hamarkada)

Miren Teresek ez zuen tarteka baino lanik egin Olabide ikastolan, adinak ez baitzion erantzukizun handirik hartzen uzten. Hala ere, gure seme-alabek bezala ikastolako adina gainditua zutenei berak irakasten zien. Horretarako zeuden eragozpen guztien gainetik bere gogo bizia ezarriz. Era askotako ekinbideak antolatzen zituen: kultura irtenaldiak, euskal festetara joanaldiak eta abar. Euskaldun gazteria berriaren hazia erein zuen, katekesiaren, euskal ikastaldien, Euskerazaintza eta Arbasoen Izkuntza elkarten bidez. Jon Oñatibia-ren metodoaz asko baliatu zen aldi hartan euskara irakasteko, Gasteizko seminarioan irakasle zen Don Inazio Oñatibia oiartzuarrak lortu baitzion Jon anaiarekin harremanetan jartzea.



Miren Teresek idatzitako Gabonetako agurra



Euskararen zerbitzaria


UMANDI ANAIAREN ITZULERA

Franco hil eta lau urtera, 1979an, itzuli zen Andoni Urrestarazu Gasteiza, arre-baren etxera. Bere laurogeita hamar urte-ekin gizon gordina eta argia azaldu zen. Etengabe euskara irakasten eta idazten jarduteko sasoian.


Diktadura luze eta latzak gogor astindu zituen neba-arrebak. Baina izan zen esker ona agertu zienik ere. Gehiegizkoa iruditu zitzaien eman zitzaien diru-laguntza. Dena den, euskararen aldeko lane-tan xahutu zuten gehiena. Besteak beste, *Asmo Iztegi* handia burutzen hasi ziren 82 urte handirekin.

Julio Casaresek gaztelaniari eskaini zio-naren antzekoa egin nahi zuen. Raimun-do Olabidek ere burubide bera baitzuen: ideia hiztegia. Hala aitortzen digu Urres-tarazuk berak: «Ene baitan gogo-iztegia-ren asmoa Olabide´tar Erraimunda josu-lagunaren lan sakon bat irakurtzean sortu eta mamitu zan. Ain zuzen 1918ko urtean Oñatin egin ziran Euzko Ikaskuntzaten arek eman zuan ikasketa ederrean».

Geroztik urte asko joan dira, 61 urte. Baina Umandiri ez zaio bere asmo hura itzali. Ekin dio lanari, hiztegi berezi hori egiteari. Ez dira hitzak alfabetoaren or-denaz ipintzen, gaien arabera baizik. Sail bakoitzean, izenak, izenondoak, aditzak, esaerak, atsotitzak eta abar sartzen.



1991. Kristau euskaldunen topaketak Estibalitzen



Meza euskaraz izango dela
dioen jakinarazpena

«Iztegi arruntetan, Olabidek ziñoen be-
zela, itzetik asmora joaten da; itz batek
zeatzez zer esan nai duen jakiteko, izte-
gia begiratzea naikoa da, bertan zabalago
ala estuago aurkitzen dalako. Asmo-izte-
gian, Olabide ere mintzo, aitzitik joka-
tzen da, asmotik itzera. Ori asmo-iztegi
guziek ematen dutena. Baiña guretzat,
euskal-asmo-iztegiak geyago emango
digu», aitortzen digu hitzaurrean Urres-
tarazuk berak.

Hamar urteko lan eskerga izan zen. Eta
hantxe zuen Andonik laguntzaile bere
arriba paregabea. Baina Miren Terese ez
zen horretara bakarrik mugatzen. Euska-
ra berpiztu nahi zuen Araban. Batez ere,




Gasteizen ematen diren euskarazko mezen berri
emateko oharra (1969)



Gure Aita, Kristau Elkartea Eubako pasiotarretan, 1995



Gure Aita, Kristau Elkartea Arraten, 1996



Gasteizko euskaldunen gogo-jardunak (1959)



Miren Terese 1990eko hamarraldian

lehen Jaunartzea egin behar zuten neska-mutilak prestatzen zituen euskaraz. Gero, jakina, batean eta bestean bilatu behar izaten zuen meza euskaraz emango zuten eliza: Jesus Obrero, Estibalitz, Brigidak, Reparadorak. Azkenean, Florida-ko karmeldarretan aurkitu zuen txokoa, Gure Aita Kristau Elkartearen izenekoaren babesean.

Ekinbide gehiagotan ere hartzen zuen parte, jakina, gogo-jardunak, Eguberri jaiak eta elizaren inguruko beste zenbait ekinaldi antolatzen. Gorputzez txikia, baina gogoz eta iraupenez handia baitzen gure Urrestarazu andereñoa.

Umandik teknologia berrietan baino gehiago sinesten zuen bere indarrean.


Nork sartu buruan bere lanerako aurrerapen hobeak bazeudela? Artisau lana zen. 100.000 fitxa baino gehiago eraman genituen Seminarioko moldiztegira Miren Teresek eta biok.

Informatika erabiltzeko aukera sortu ziztaigun orduan. Ia-ia deabruzkotzat zeuzkan Andonik aurrerapen horiek eta nork atera bere seta itsutik? Alferrik aritu zen bere arreba aurrerapen horien egokitasunaz neba bereganatu nahian. Entzutekoa zen bien arteko eztabaida. Ez genuen Andoniren burua aldatzerik lortu.

ASMO IZTEGIA

Umandi 1993ko azaroaren 21ean hil zen, 91 urterekin. Eta hor geratu ziren bere fitxak arrebaren esku, ez zerurako eta ez lurrerako. Miren Teresek ez baitzekien zer egin. Urtez aberats eta osasunez ahul, edonork utziko zituen bazterren batean, bertan behera.

Noraezean zegoenez, neuk lagundu nion erakundeetara. Aurrena, kulturako diputatuarengana jo genuen, baita laguntzeko hitza eman ere idatziz. Umandiren



Umandiren heriotza dela eta, Euskaltzaindiak Miren Tereseri dolumina adierazteko bidalitako gutuna

ikasle izan zen Jose Angel Cuerda alkatearen bidez iritsi ginen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailera, Mari Karmen Garmendia sailburuarengana. Bere esku hartu zuen hura bideratzea. Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxearen (UZEI) esku geratu zen argitalpena.


Hamaika joan-etorri egin behar izan genuen Donostiara, zalantzak eta helbu-



Asmo hiztegirako zirriborroak

ruak argitzeko. UZEIko langileen miresmena berehalaxe irabazi zuen. Harrituta uzten baitzituen emakume txiki haren argitasunak eta adoreak. Euskarari eta neba zenari zien maitasunak ez zion argitaratu arteko bakerik eman.

«Bi urte eta erdiz aritu da UZEIko lantaldea hiztegia euskarri informatikora kopiatzen [...] Esku artean duzun lan honek orain arte euskal hiztegitintzak bete gabe zuen hutsuneetako bat nabarmentzen du [...] Inguruko erdaretan aspaldianik zeuden horrelako hiztegiak, eta



gurean Andoni Urrestarazu *Umandi* arabarra izan da tamaina honetako lan eskerge burutu duen bakarra, gaur arte argitaragabea zena.» Hitz horiekin aurkezten du UZEI lantaldeak hiztegi hori.

Gasteizen aurkeztu zen hiztegi hau Miren Terese Eusko Jaurlaritzako Sailburuak eta Kulturako foru diputatuak ondoan zutela. Urrestarazu anderearentzat izan ziren begi-belarri gehienak eta zorionik beroenak. Baina Miren Terese ere ez zen kamutsa izan eskerrak ematerakoan.

Handik hilabete batzuetara, Arabako Foru Aldundiak omenaldia egin nahi zio-la Umandi zenari adierazi zion Miren Tereseri Pedro Sancristóval Kulturako foru diputatuak: *Gramática Vasca* argitaratu nahi zuela faksimilean. 500 ale, hain zuzen. Ez zen nolanhikoa Miren Tereseren poza. Denbora aurrera eta hitzak putz bihurtu ziren. Poz hori gabe joan zen mundu honetatik, 2004ko urtarrilaren 8an.

EUSKARA HERRIKOAREN ALDEKOAK

Andoni bezalaxe, euskara herrikoiairen aldekoa zen Miren Terese. Bizkaierarekin egin zuen topo. Aulestiko euskara entzun zuen lehenengo. Ikasi ere hango hitzak eta aditzak ikasi zituen. Baina anaiak gipuzkerarako joera zuenez eta erabiltzen zuen Jon Oñatibiaren metodoan gipuzkera zenez nagusi, Miren Tereseri ere euskara hori nagusitu zitzaion. Bere harremanak ere Euskerazaintza, Arbasoen Izkuntza eta horrelakoekin zituen. Euskaldun berria izanik ere ez zuen batuaren biderik onartzen.



Miren Terese euskara herrikoiairen alde zegoen

Baina inork ezin ukatu euskararen alde egin zuen lan eskerga. Azkenean idazkera da gutxienekoa, euskara ikasteak, irakasteak eta euskaltzaletasuna zabaltzeak balio du gehien. Hori, berriz, gorputz eta arima egin zuen bizitza luzean.

Sinesmen handikoa, gorriak ikusia, Jainkoarengan atsedean hartzeko garaia etorria zuela eta, berak prestatu zuen bere eskela. Bera lagun guztioi deitu eta bere

Arabako Foru Aldundian Felix Ormazabal ahaldu nagusiarekin, Jose Angel Cuerda Gasteizko alkatearekin, Mikel Mintegi Kulturako foru diputatuarekin eta Mari Karmen Garmendia Kulturako sailburuarekin *Asmo iztegia* dela eta (1996-11-6)

hutsegiteengatik barkamena eskatu zigun. Halaxe hil zen gure euskaldun fededuna.

Euskarak ama askori zor dio mendez mendeko bizia. Seme-alabei gehienbat amek irakatsi baitiete hizkuntza. Urterik zailenetan ere emakume askori zor zaio berpizkundera. Isil-isilik egin dute lan ikastolak sortzen eta indartzen, herrian euskal giroa suspertzen. Andoni Urres-tarazuk ere Miren Terese izan du lagun eta laguntzaile bizitza osoan. Arrebaren laguntzarik gabe ez litzateke Umandi hain handi. Anaiarekin batera merezi du



arrebak ere ohorerik, oroitzapenik eta esker onik.

Eta dagoen lekuan dagoela, «euskaraz ba al dakizu?» galdetzen jarraituko digu, ez bairik gabe, euskal kontzientziarik Euskal Herrian gal ez dadin.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzogatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Alkorta familiari
- Dionis Arroitari
- Rosa Mari Agudori
- Begoña Aguirreri
- Txema Arzalluzi
- Hnas. Carmelitas de la Caridad-ekoei
- Juncal Durani
- Asparrenako Udalari
- Carmen Gomezi (Sancho el Sabio Fundazioa)
- Udaberriari
- Alberto Agirreazaldegiri (UZEI)
- Izaskun Arrueri
- Eider Echeazarrari
- *Álava en sus manos* bildumari. Caja Provincial de Álava, 1983
- *Enciclopedia histórico-geográfica de Vizcaya* bildumari. Aramburu Editor, S.A., 1984

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a, 2009ko azaroa
Ale-kopurua:	2.300
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Euskaratzailea:	Mikel Atxaga
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Fotokonposizioa:	Ipar, S. Coop. Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao
Inprimaketa:	Grafo, S.A. Cervantes etorb., 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)
ISBN:	978-84-457-2995-3 (Lan osoarena) 978-84-457-2997-7
L.G.:	BI - 2783-09

BIDOGULLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco